
01 17
VITORIA-GASTEIZEKO POPULAKETA ETA POPULAZIOA

Populaketa hitzak populazioaren kokalekuei erreferentzia egiten die, euren kopurua, dimentsioak eta lurraldeko antolaketa kontuan hartuta.

Biztanleria, berriz, lurralde bateko biztanleak antolatu diren erari dagokio. Vitoria-Gasteizeko udal mugartean (277 km2) 64 gune daude (kontzeju edo herri erakunde bereziak), hiriburuko gune nagusiaz gain. Azken horretan 240.109 biztanle biltzen dira, eta kontzeju guztiek, berriz, 4.927 biztanle biltzen dituzte. Horietatik, 16 kontzejuk bakarrik 100 biztanletik gora dituzte.

Adierazitako ortoargazkian (2015), adibide bezala, 5 kontzeju bakarrik ikus daitezke, besteak beste: Jungitu, 107 biztanlerekin, Ilarratza 96, Zerio 24, Matauko 42 eta Oreitia, 79 biztanlerekin. Horrenbestez, nabarmen sakabanatutako populaketa izango litzateke (gune asko daude), baina populazioa, berriz, erabat elkartuta dago, bi guneetatik bakar batek – gune nagusia- biztanleen %98 barne hartzen baitu.


Hazken hamarkadetan, Vitoria-Gasteizeko hirigune nagusiaren hiri bilbeak zenbait gune erabat hartu du barne, esaterako: Arriaga, Betoño edo Ali.



Vitoria-Gasteiz udalerriko udal mugarteak 277 km2-ko hedadura du, hots; Euskal Autonomia Erkidegoko handiena. Bertan, 64 hirigune txiki hartzen ditu barne (kontzejuak edo herri erakundeak).

Hirigune asko atzematen dira (sakabanatutako populaketa), baina populazioa elkartuta dago: gune bakar batek biztanleen %98 hartzen du barne.

Laukiak aurreko ortoargazkiak adierazitako gunea irudikatzen du.



Ortoargazkia 2015. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.

UTM 30N ETRS89 X: 534357 m Y: 4745565 m Z: 527 m (Matauko).